



JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILBURUAREN AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA HASIERA EMATEA JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILAREN EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETUA EGITEKO PROZEDURARI

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailen egitura berrantolatzeari eta Administrazioaren sailen artean eskumenak banatzeari ekin zitzaion, hain zuzen ere, Jaurlaritzaren eginkizun politiko-administratiboan etenik gabeko jarraipena bermatzeko, eta aurreko administrazio-antolamendutik dekretu honetan onartzen den antolamendura iragatea antolatzeko.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak xedatzen duenez, sailburuek, Jaurlaritzaren Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hala badagokio, lehendakariari aurkeztuko dizkiote, 2024ko urriaren 31 baino lehen, bakoitzaren saileko erregelamendu organikoari buruzko proiektuak, onarpena eman diezaien.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 20. artikulua zehazten ditu Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitekoak eta jardun-arloak, eta dekretu horren hamabigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko organo eta unitatek –Gizarte Politiketako Sailburuordetza izan ezik– osatuko dute sail hori. Halaber, sail berri horri atxikitzen zaizkio «Gogora-Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua» administrazio organismo autonomoa eta «Gizarteratzearen Euskal Agentzia» zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Saileko erregelamendu organikoaren arauketa bat etorri beharko da ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoaren bigarren apartatuak xedatutako antolaketa-irizpideekin, hain zuzen, hauekin: austeritatea, egiturak soiltzea, eduki handiko eremu funtzionalak taldekatzea, egiturazkoak ez diren staff eremu funtzionalak identifikatzea eta informazioaren teknologiei ahalik eta probetxu handiena ateratzea.

Horren ondorioz, bidezkoa da erantzutea lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak ezarritako aginduari eta, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektua egitea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean (aurrerantzean, XOEPL) ezarritako izapidetzearen arabera.





6/2022 Legeak II. kapituluko bigarren atalean xedatzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz abiaraziko da. Prozedura hasteko agindu honen betekizunak eta gutxieneko edukia ere ezartzen ditu.

Horregatik guztiagatik, eta prozedura hasteko aginduak ezinbestean izan behar duen edukian oinarrituta (XOEPLaren 13.1 artikulua), honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA. - Agindu honen xedea eta prozeduraren hasiera agintzeko eskumena.

Agindu honen xedea da XIII. Legegintzaldirako Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarriko duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea.

Prozedura hasteko agindua emateko eskumena Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena da, aipatutako 6/2022 Legeak 12.1 artikulua xedatutakoari jarraikiz.

BIGARRENA. - Arauaren xedea eta helburua.

Egingo den dekretu-proiektuaren xedea da Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzea (Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez sortua baita), Justizia eta Giza Eskubideen Sailari esleitutako jardun-arlo bakoitzerako Gobernuaren programan aurreikusitako xedeekin eta printzipio gidariek bat etorriko baita.

HIRUGARRENA. - Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Proiektatutako araua autoantolaketa-ahalmenaren adierazpena da, hain zuzen, Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen diona autogobernua instituzionalizatzeko organoak eta administrazio autonomikoa osatzen duten organoak, administrazioaren atalak edo entitateak sortu, aldatu eta ezabatzea arautzeko.

Eskumen-esleipen horretan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak aurreko legegintzaldirako irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak eta haren aldaketek onartutako sailen egitura egokitu du.

LAUGARRENA. - Ordenamendu juridikoan izango duen ondorioa.



Proiektatzen ari den araua indarrean sartzean, indargabetuta geratuko dira xedapen hauek:

- a) 12/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
- b) Dekretu honen azken xedapenetako lehenengoa: 5/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez onartzen baitira Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentziaren estatutuak eta atxikitzen baitira "Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo" zuzenbide publikoko estatu-erakundean zerbitzua ematen zuten langile transferituak.
- c) 40/2022 Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez bigarrenenez aldatzen baita Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua.
- d) 42/2023 Dekretua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez hirugarrenenez aldatzen baita Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua.
- e) Proiektatzen ari den dekretuaren maila berekoak edo beheragokoak izanik beronek xedatutakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak.

Era berean, dekretua izapidetzean kontuan hartu beharko da Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.6 artikulua xedatutakoa; izan ere, artikulua horrek dioenaren arabera, egitura organikoan egiten diren aldaketek haiekin ekarriko dute, zuzenean, dagozkion lanpostu-zerrendak edo horien ordezkoak aldatu beharra. Dena den, apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, sailen edo lanpostuak atxikita dauden organoen izenen aldaketa baino ez direnak eta eduki funtzionalari eragiten ez diotenak ez dira kontuan hartuko.

BOSGARRENA. - Generoaren araberako inpaktua.

Arauk, funtsean, antolaketa xedea duenez, ez zaio nahitaez eskatzen generoaren araberako inpaktuaren txostena egiteko, izan ere, generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzea eta gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpenari buruzko Gidalerroetako lehenaren 2.1.b.i) zenbakian ezarritako salbuespena aplikagarri zaio, eta han berariaz salbuesten dira egitura organikoa eta funtzionala arautzeko dekretuak. Gidalerro horiek Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu ziren 2012ko abuztuaren 21ean.

Kasu honetan, generoaren araberako inpaktuaren txostena aurkeztu beharrean, aldaketak generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea behar bezala justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko da, gidalerro horien II. eranskinean adierazi bezala, eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagokion egiaztapen-txostena bideratu beharko du.

SEIGARRENA. - Ekonomian eta aurrekontuetan duen eragina

XOEPLaren 13.1.d) artikulua arabera, prozedura hasteko aginduak barne hartu beharko du ukituko dituen administrazio publikoen aurrekontuetan izango duen eraginari buruzko hurbilketa, dena delako gai horretan nahiz, kasuan-kasu, dagokion jardura-sektorean izango duena, baita proposamenak herritarrentzat izan ditzakeen onurei eta zama administratiboei buruzkoa ere, eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainetan izan dezakeen eraginari buruzkoa.

Egingo den dekretu-proiektuaren xedea Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzea denez, gainerako administrazioei eta herritarrei eragin gabe, nahikoa izango da espedientean proiektuari buruzko memoria ekonomikoa gehitzea; memoria horretan proposatutako egiturak ekonomian nola eragingo duen aztertuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikulua dioenaren arabera.

ZAZPIGARRENA. - Egin beharreko izapideak eta txostenak.

XOEPLaren 13.1. artikulua e) apartatuak xedatutakoarekin bat, prozedura hasteko aginduak jaso beharko du bidezko iritzitako izapide eta txostenak zeintzuk diren, proposatu den arauketaren gaia eta edukia direla-eta..

1.- Dekretu-proiektuaren idazkerari dagokionez, XOEPLak dioenari jarraitu beharko zaio. Prozedura hasteko agindu honek esandakoa oinarritzat hartuta idatziko da, hain zuzen, bilatzen diren xedeei hoberen egokitzen diren aukerak eta aurreikusitako arauketaren egokitasuna eta legezotasuna bermatzeko egoki jotzen diren kontsulten emaitza aintzat hartuta.

XOEPLaren 14.5 artikulua arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, eta bi hizkuntzen berdintasuna bermatu hizkuntza bakoitzaren bertsioa egiteko orduan, araua idazteko prozesu osoan. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, alde aurretik onartzeko eta ondorengo instrukzio-fasearen izapidea burutu baino lehen. Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi beharko da.

2.- Proiektatutako arauak, funtsean, antolamendu-xedea duenez, ez da beharrezko jotzen idazketa egin aurreko kontsulta publikoaren izapidea burutzea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua eta XOEPLaren 11. artikulua jasotzen dute izapide hori. Kontsulta horren xedea da arauak eragin ditzakeen subjektu edo ordezkari handiena duten erakundeen iritzia jasotzea.

3.- Agindu honen bosgarren apartatuak xedatutakoari jarraikiz, generoaren araberako inaktuaren ebaluazio-txostena ez da gehituko, baina behar bezala justifikatu beharko da genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko Gidalerroen II. eranskinean xedatutakoarekin bat.

4.- Prozedura hasteko agindu hau Legesarea ezagutza konpartituko lankidetzagunean argitaratuko da, Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an hartutako erabakiaren lehenengo apartatuak (1. puntua) xedatutakoaren arabera; erabaki haren bidez onartu ziren xedapen orokorrak egiteko prozedurako izapidetze-jarraibideak.

Halaber, XOEPLaren 13.2 artikulua dioenarekin bat, prozedura hasteko agindu hau Legegune Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, argitaratuko da. Agindua argitaratzeak harekin ekarriko du, automatikoki, jakinarazpena egin izana sail guztiei, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten, hala badagokio.

5.- Nahitaez egingo da arau-eraginaren analisiaren memoria, prozedura hasteko aginduekin loturikoari dagokionez, proposamena egiten duen organoaren iritziz esanguratsua izan daitekeen edozein alderdi bildu edo berretsi beharko baitu; nolana ere, XOEPLaren 15.3 artikulua xedatzen duen edukia jaso beharko du. Memoria horrek dekretu-proiektuaren analisi juridikoa ere jasoko du, saileko Aholkularitza Juridikoak egingo baitu, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikulua xedatutakoaren arabera.

6.- Halaber, agindu honen seigarren apartatuan adierazten den memoria ekonomikoa erantsi beharko da.

7.- Dokumentu horiek egindakoa, dekretu-proiektua aurretiaz onetsiko da, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren agindu bidez.

Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28ko bileran hartutako erabakiaren lehenengo apartatuak (2. puntua) xedatutakoaren arabera, sustatutako arau-ekimenaren berri emango da aurretiaz onesteko agindua eta arau-proiektua Legesarea ezagutza konpartituko lankidetzagunean sartuz. Erabaki haren bidez onartu ziren xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapideak egiteko jarraibideak.

Era berean, XOEPLaren 16.3 artikulua dioenarekin bat, aurretiaz onartzeko agindua, arau-proiektuekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan publikatuko da. Ildo beretik, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko



19/2013 Legeak xedatutakoarekin bat, publizitatea egiteko agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz zein gaztelaniaz ezagutarazteko, Legegunean publikatuko da proiektua. Espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak ere argitaratuko dira.

8.- Indarrean den arau-xedapenak egiteko prozedurarekin bat, eta XOEPLaren 16. artikulua araberan, bidezkotzat jotzen dira arau bidez sartzan diren edo ezinbestekoak ez diren txostenak, hain zuzen, ondoren adieraziko direnak, bai eta Administrazio Orokorreko sailari egindako kontsultak ere, aldi berean eta hilabeteko epean egingo baitira, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoan xedapenaren testua argitaratzen den egunetik kontatua.

- a) EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Institutuaren txostena, zeinak egiaztatuko baitu generoa ez dela esanguratsua, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 20.6 artikulua aplikatuz.
- b) Administrazio Publikoen Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabilera normalizatzekoari dagokionez duten eraginari eta haiek hizkuntza arloarekin loturik indarrean den araudiari egokitzeari buruzkoa, hori guztia manu hauek agindutakoarekin bat: Kultura eta Hizkuntza Politikaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.2.l) artikulua (dekretu hori indarrean dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrek xedatutakoari jarraikiz); xedapen orokorrek egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikulua.
- c) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1.d) artikulua xedatutakoari jarraikiz (dekretu hori indarrean dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrek xedatutakoaren araberan).



- d) Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua ezarritakoari jarraikiz. Artikulu horrek xedatutakoaren arabera, «1. *Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz*», txosten hori nahitaezkoa da xedapen orokorrak egiteko prozeduran.

Beraz, nahitaezko txostena bada ere, nahikoa izango da saileko txosten juridikoan hura aipatzea, izan ere, arau-proiektuaren xedeak ez du eraginik izango enpresen eraketan, abian jartzean eta funtzionamenduan.

- e) Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2.a) artikulua zuzendaritza horri esleitutako ahalmenarekin bat, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 18.a) artikuluekin loturikoari dagokionez. Dekretu hori indarrean dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrak xedatutakoari jarraikiz.
- f) Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27 artikulua xedatutakoarekin bat.

9- Dekretu-proiektuaren edukiari dagokionez, ez da beharrezko irizten entzunaldi-izapidea eta informazio publikoarena egitea. Antolamendu-izaerako xedapena izanik, proiektua salbuetsita dago bi izapide horiek egiteko, XOEPLaren 17.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

10.- Ez da beharrezkoa beste administrazioei kontsulta egiteko izapidea egitea. Ez da beharrezkoa EAEko gainerako administrazio publikoei kontsulta egitea, antolamendu-izaerako araua da eta, aplikazio-eremua duena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, haren administrazio instituzionalarekin eta haren mendeko eta hari atxikitako gainerako ente instrumentalekin batera.

11.- Halaber, ez dago Europar Batasunean egin beharreko izapiderik.

12.- XOEPLaren 19. artikulua xedatutakoaren arabera, nahitaez eskatu behar dira funtsezko txosten hauek:



- a) Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoak emandako legezkotasun txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.2.a) artikulua xedatutakoari jarraikiz. Txosten-eskabidearekin batera laburpen-memoria bidali beharko da, 144/2017 Dekretuaren 11.3 artikulua adierazitako edukia izango baitu.
- b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol ekonomikoko txostena, Ekonomia eta Ogasuneko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4.a) artikulua ezarritakoaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitatearen testu bateginak (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) III. tituluaren IV. kapituluari jasotako aurreikuspenekin loturik– eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren eremuan barneko kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak ezarritakoaren arabera. Txostena emateko epea 15 egunekoa izango da Kontrol Ekonomikoko Bulegoan arau-xedapenaren proiektua eta edukiaren arabera aurkeztu beharreko dokumentazioa jasotzen direnetik kontatuta.

13.- Behin arau-proiektua izapidetzen amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria laburra egingo da, aurrekariak eta burututako izapideak jasoko baitu, XOEPLaren 24.2 artikulua dioenaren arabera.

14.- Dekretua ezagutarazteari eta hura argitaratzeari dagokienez, XOEPLaren 29. artikulua arabera, eta Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikulua jarraikiz, erregelamenduzko arauak Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

ZORTZIGARRENA. - Idazteko sistema.

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua eta XOEPLaren 14.5 artikulua arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, eta bi hizkuntzen berdintasuna bermatu hizkuntza bakoitzaren bertsioa egiteko orduan, araua idazteko prozesu osoan. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

Aipatu 10/1982 Legeak 8.1 artikulua xedatzen duena betetzeko, sistema hau erabiliko da: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzuliko du euskarara arau-testuaren gaztelaniazko bertsioa.

Era berean, XOEPLaren 27.3 artikulua xedatutakoari jarraikiz, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta



gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsiok zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

BEDERATZIGARRENA. Prozedura hasteko agindua bidaltzea

Agindu hau Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidaliko da Dekretua egitearen eta lehenago aipatutako prozedura izapidetzearen ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ